

Gaixotasun Infekziosoetako Unitatea

Gaitasunetan oinarritutako Prestakuntza Espezializatua Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea

Irakaskuntza-ikuspegia:
Zazpi gaitasun-eremutan oinarritutako lanbide-profila



Konpromisoa: Erantzukizun sozialean oinarritutako irakaskuntza-akreditazioa

Erreferentzia: Morán-Barrios J. **Un nuevo profesional para una nueva sociedad. Respuestas desde la Educación Médica: la formación basada en competencias.** Rev. Asoc. Esp. Neuropsiq. 2013; 33 (118): 385-405.
<http://www.revistaen.es/index.php/aen/article/view/16614/16454>



Gaixotasun Infekziosoetako Unitatea eta Pretakuntza Espezializatuko Unitatea. Gurutzetako

Unibertsitate Ospitalea. Barakaldo. Bizkaia. [CC BY-NC-ND](https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/)



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



Gaixotasun Infekziosoetako Unitatea

Gaixotasun Infekziosoetako Unitateak prestakuntza integrala eskaintzen du patologia infekziosoaren gainean. Gaixotasun infekziosoei buruzko ezagutzak zabaltzea eta Medikuntzako ikasle zein espezialitate ezberdinetako Barneko Mediku Egoiliarren (BAME) prestakuntzarako tutoretza gure zerbitzuaren zutabeak izan dira hasiera-hasieratik.

Jarraian adierazten da:

- Nor gara
- Non gaude
- Irakaskuntza-eskaintza
- Prestakuntza-ibilbidea (errotazioak)
- Ikerketa
- Prestakuntzaren ebaluazioa



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



Nor gara



Unitateko burua Josune Goikoetxea Agirre dk.



Tutorea: Laura Guío Carrión dk.

Unitateko gainerako mediku adjuntuak:

Elena Bereciartua dk.

M^a José Blanco dk.

Javier Nieto dk.

Regino Rodríguez dk.

Gorane Euba dk.

Marta Ibarrola dk.

Mikel del Álamo dk.

Unitatea 1992. urtean sortu zen. Plantilla honako hauek osatzen dute:

- 1 atalburu
- 8 mediku adjuntu

Unitateak arlo edo unitate asistentzial hauek ditu:

- Ospitalizazioa (12. solairua): 20 ohe.
- Ospitaleko kanpo-kontsultak (Kanpo Kontsultak 2 eraikina – 1. solairua).



- Unitatearen berezko irakaskuntza-gela aurkezpenak, saioak eta kasuen eztabaidarako (13. Solairua – Infekziosoetako solariuma).

Hauek izan dira gertakaririk nabarmenenak unitatearen garapenean:

- Ospitalizazioko solairua GUOko 12. solairuan.
- Aholkularitza ematen diegu ospitaleko zerbitzu mediko eta kirurgiko guztiei, gaixotasun eta konplikazio infekziosoen inguruan.
- Laguntza GIBak kutsatutako pazienteei eta infekziosoen kontsulta orokorra
- Kontsulta monografikoak era progresiboan sartzea: Patologia infekzioso tropikala duen pazientearen arreta, oin diabetikoa, infekzio osteoartikularrak, organo solidoaren transplante duen pazientearen infekzioak, sexu transmisiozko gaixotasunak, infekzio oftalmologikoak (ikusi Prestakuntza Eskaintza atala)
- Barneko ikasketa-taldeak: diziplina anitzeko zenbait lan-taldetan parte hartzen dugu era aktiboan -horietako batzuk Gaixotasun Infekziosoetako Unitateko medikuk edo erizainek sortuak- eta urrats handia izan da ospitalean garatzen dugun talde-lanari begira:
 - Endokarditis Infekziosoaren Maneiua eta Laguntza taldea (GAMES)
 - Infekzio Osteoartikular taldea
 - Oin diabetikoaren diziplina anitzeko maneiua taldea
 - Gibelesko Transplante Ortotopikoa eta Giltzurruneko Transplanteko programaren taldea
 - Laguntza Mikrobiologiako Zerbitzuari komunitateko, ospitaleko eta osasun-zainketei lotutako bakteriemien segimenduan.
 - Erizainek zenbait taldetan parte hartzen dute era aktiboan.
 - Patologia infekziosoen maneiurako protokolo eta prozedura ugari sortzen dugu ospitale-eremuan



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



- Parte hartze progresiboa ospitaleko hainbat batzordetan: Infekzioen Batzordea, MAPAC Batzordea, COVID Batzordea, Bioetika Batzordea.
- Parte hartzea estatuko zein nazioarteko hainbat Saiakuntza Kliniko eta Ikerketa-proiektutan bai eta Ikerkuntza Estatuko zein Nazioarteko hainbat Saretan ere (ikusitako Ikerkuntza Atala)
- PROA taldearen sorrera: Antibiotikoen erabilerari buruzko optimizazio-programak egitea eta garatzea, eta bakteriekiak egunero kontrolatzea.
- BioCruces ikerketa-taldea: Gaixotasun Autoimmune, Inflamatorio eta Infekziosoen ikerketa-taldea: Biocruces Institutuko Gaixotasun Infekziosoen taldea.
- Unitateko hainbat kide unibertsitate-irakasleak gara UPV/EHUko Medikuntza Fakultatean., Gurutzetako Irakaskuntza Unitatean
- Ezkerralde Enkarterri Gurutzetako ESIan integratzea, prestakuntza-lankidetzak praktika klinikoko gidari bidez eta lankidetzak progresiboa Lehen Mailako Arretarekin, interkontsulta ez-presentzialak abian jarrita.

MEMORIA ANUAL OSI EZKERRALDEA ENKARTERRI CRUCES



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea Prestakuntza Espezializatuko Programa Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



Non gaude

Gaixotasun Infekziosoetako Unitatea Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean dago:
Gurutzetako plaza z.g. Barakaldo 48903.
Barakaldo, Bizkaia
[Ikusi ospitalea Google Maps](#) aplikazioan

Zerbitzuko idazkaritza **12. solairuan** dago.
Haxe da administrazioko idazkaria:
Carmen Cajide

Harremanetarako telefonoa:
+34.94.600.6000, luzapena 2330

Posta elektronikoa:
Secretaria.InfecciososCruces@osakidetza.net





Prestakuntza eskaintza

Espezialitate Medikoetako Batzorde Nazionalak gaitasun espezifikoko arlotzat jo du Gaixotasun Infekziosoen alorra, eta prestakuntza espezifikoko behin betiko programa baten zain dago gaur egun. Hori dela-eta, Barne Medikuntzako Batzorde Nazionalak diseinatutako programa jarraitzen du gure Unitateak, bertako fakultatiboen ezagutzari eta esperientziari esker luze eta zabal osatua.

Gure antolakuntza eta asistentzia-jarduera handia denez gero, espezialitateko alderdi nagusi guztietan espezialisten prestakuntza eskaini eta berma dezakegu.

A. Ospitalizazioko solairuan: patologia infekziosoarekin ospitaleratutako pazienteak, hauek barne: paziente immunogai eta immunodeprimituak, organo solidoen transplanteko hartzaileak; paziente onkologikoak edo GIB infekzioa dutenak. Gaixotasun infekziosoen patologia ugari artatzen dira: NSZaren infekzioak, komunitate zein ospitale-pneumonia edo ospitale-zainketekin lotutakoak, larruazal eta alde bigunetako infekzioa gernu-traktuaren infekzioa, infekzio intrabaskularrak edo material protesikoaren infekzioak. Paziente gehienak Larrialditako Zerbitzutik datoz, baina asko ere ospitaleko beste arlo batzuetatik edo Kritikoaren Unitateetatik ingresatzen dira.

B. Ospitaleko beste zerbitzu batzuetan ingresatuta dauden Pazienteen Arreta (interkontsultak). Hauxe da Gaixotasun Infekziosoetako Unitateko fakultatiboen zereginik garrantzitsuenetarikoa bat, gurea ospitale tertziarioa eta pisu kirurgiko handiko zentroa baita, hala interbentzio motagatik nola kopuruagatik. Gure ikuspegia zeharkakotasuna da, arlo desberdinetako espezialistekin egiten dugun diziplina anitzeko lan gisa ulertuta. **Interkonstultaren** bitartez, laguntza ematen zaie ospitaleko zerbitzu guztiei, bai medikoei (Barne Medikuntza, Digestiboa, Neurologia, Nefrologia, Pneumologia, Kardiologia, Hematologia, Onkologia, Erreumatologia, Muineko Lesionatuen Unitatea, Endokrinologia) bai kirurgikoei (batez ere Kirurgia Orokorra, Traumatologia, Neurokirurgia, Gibeledoko Kirurgia eta Gibeledoko Transplantea, Urologia, Toraxeko Kirurgia, Bihotzeko eta Bihotzhodietako Kirurgia), bai Paziente Kritikoaren Unitateei (Anestesia-Bizkortzea, Zainketa Intentsiboak, Unitate Koronarioa edo Erredura Handiak).

Inteskonsulta-lanaren garrantzia oso handia da, zeren eta paziente horiek sarri konplikazio infekzioso larriak dituzten, eta egoera horretan Gaixotasun Infekziosoetako Unitatearekin elkarlanean aritzea funtsezkoa da.



C. Kanpo-kontsultak:

- a. **PATOLOGIA INFEKZIOSOAREN KONTSULTA OROKORRA**
- b. **KONTSULTA MONOGRAFIKOAK:**
 - i. **ORGANO SOLIDOEN TRANSPLANTEARI LOTUTAKO PATOLOGIA INFEKZIOSOA**
 - ii. **BIDAIARIEN PATOLOGIA INFEKZIOSOA ETA MEDIKUNTZA TROPIKALA**
 - iii. **OIN DIABETIKOA: KONPLIKAZIO INFEKZIOSOAK**
 - iv. **INFEKZIO OSTEOARTIKULARRA**
 - v. **GIB INFEKZIOAK**
 - vi. **SEXU TRANSMISIOZKO INFEKZIOAK**
 - vii. **INFEKZIO OFTALMOLOGIKOAK**

D. PROA: Gurutzetako Ospitalean agindutakoak espektror zabaleko eta PROA taldeak definitutako tratamendu antimikrobianoen preskripzio farmakologikoen eguneroko balorazioa, agindu duen klinikoari, hala badagokio, egokitzeari eta aldatzeari buruzko gomendioa egiteko.

E. BAKTERIEMIEN KONTROLA: Mikrobiologiako laborategian atzemandako bakteriemien eguneroko balorazioa, mediku arduradunari garaiz jakinarazteko eta gomendio kliniko eta terapeutiko bat egiteko

F. INTERKONTSULTA EZ-PRESENTZIALAK: Ezkerralde Enkarterri Gurutzetako ESiko espezialitate desberdinetatik bidaliak; Lehen Mailako Arretak protagonismo berezia du.

G. Saio Klinikoak: gure jarduera-egutegiaren arabera. Saio klinikoak astean hainbat egunetan egiten dira, formatu ezberdinak baliatuz (bibliografikoak, kasu klinikoak, berrikuspenak, elkarlana beste zerbitzu batzuekin, diziplina anitzeko saioak...)



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



Informazio gehiago nahi izanez gero, gure zerbitzu-zorroa ikus dezakezu esteka honetan:

https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/osk_ezencr_cartera_servicios/eu_def/adjuntos/servicios_medicos/Gaixotasun_Infekziosoen_U-17-02-2020.pdf

Irakaskuntza Batzordeak [ikastaroak \(ikusi irakaskuntza-jarduerak\)](#) antolatzen ditu espezialitate guztien oinarritzko prestakuntza bateratua osatzeko. Ikastaro horietako gehienak ezinbestekoak dira azken titulua lortzeko.

Ospitaleak hainbat Saio Orokor (ikusi irakaskuntzako jarduerak) burutzen ditu hilero asteazken batean edo bitan, 8:30ean Areto Nagusian. Saio horiek funtsezkoak dira prestakuntza integrala lortzeko, espezialitatea edozein izanda ere, alde batetik, interes bereziko kasu klinikoei buruz ikasten delako, beste batetik, Ospitalearen, zerbitzuen edo unitateen funtzionamendua ezagutzeko balio dutelako – bai eta beren arteko erlazioa zein den ere– eta bukatzeko, hainbat batzorderen jarduera garrantzitsuaren berri ematen dutelako.



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



Prestakuntza-ibilbidea (Errotazioak)

Gure unitatean formatzen diren egoiliarrek espezialitate eta urte ezberdinetakoak izaten dira. Horren arabera, beren prestakuntza-ibilbidea egokitzen dugu, gurekin dauden bitartean.

Arlo medikoetako egoiliarrek (1.,2.,3. urtea): Gastroenterologia, Kardiologia, Nefrologia, Hematologia, Onkologia Medikoa, Dermatologia, Familia Medikuntza, Lan Osasuna: 2-3 hilabeteko egonaldia izan ohi da.

Gure solairuko medikuarekin batera egiten dute lan, eta espezialitatearekin lotutako zerbitzuetatik iristen diren kontsulta artekoen arretarekin osatzen dute errotazioa.

Barne-medikuntzako egoiliarrek 3./4./5. urtea: gure ospitalea (GUO) eta gure erkidegoko zein beste autonomia elkarte batzuetako ospitaleak: Santiago Apóstol Ospitalea (Gasteiz), Txagorritxu Ospitalea (Gasteiz), Galdakao Ospitalea, Hospital Universitario de Burgos. Egonaldia 4-6 hilabete bitartekoa da, eta honela banatzen da: ospitalizazioko solairua, arlo mediko eta kirurgietako kontsulta artekoak, zainketa kritikoetako arloa, immunodeprimitu onkologikoak eta transplante izan duten pazienteak. Arlo horietan guztietan diharduten fakultatiboekin errotatzen da.

Egoiliarren batek interesa badu bere prestakuntza ikastaro espezifikoekin osatzeko, informazioa eta sarbidea erraztuko zaizkio.



Ikerkuntza

Biocruces Ikerkuntza Institutuaren sostengua du Ospitaleak ikerketarako.

Hauek dira zerbitzuak zuzentzen dituen edo sarean lankidetzan diharduen ikerketa-lerroak:

- a. Konplikazio infekziosoak organo solidoen transplante-hartzaileen artean
- b. Ospitale-infekzioak eta zainketa sanitarioei lotutakoak.
- c. Infekzio intrabaskularrak
- d. Infekzio osteoartikularra
- e. GIB infekzioa
- f. Gaixotasun tropikalak
- g. SARS-CoV2 infekzioak

Gaur egun, honako ikerketa hauek garatzen ari dira:

- ✓ ENSAYO CLÍNICO MIKROBIOMIK: fase III, microbiota fecal liofilizada vs fidaxomicina en infección por clostridiodes
- ✓ ENSAYO CLÍNICO RICODIFY: fase III, comparativo de Ridinilazol frente a vancomicina en infección por clostridiodes
- ✓ ENSAYO CLINICO MICROCORE: evaluación de la eficacia de DAV132 en la prevención de la infección por Clostridiodes difficile en pacientes con reciente diagnóstico e Leucemia Mieloide Aguda o Sd mielodisplásico tratados con quimioterapia intensiva
- ✓ ENSAYO CLÍNICO INFBACT: necesidad de tratamiento antibiótico frente la bacteriemia de catéter de bajo riesgo por estafilococos coagulasa-negativa
- ✓ ENSAYO CLINICO SAFO: comparación entre tratamiento con cloxacilina en monoterapia vs biterapia con fosfomicina en bacteriemia por SAMS
- ✓ ESTUDIO IRVIPA: respuesta inflamatoria del huésped a la infección por Pseudomona, impacto de la multiresistencia en la evolución de la infección
- ✓ ENSAYO CLINICO ReSTORE: fase III, Rezafungina para el tratamiento de la candidemia y la candidiasis invasiva



- ✓ ENSAYO CLINICO DURATIOM: eficacia y seguridad de diferentes duraciones de tratamientos antibióticos en infección asociada a material de osteosíntesis tras fractura de huesos largos.
- ✓ ENSAYO CLÍNICO INTENSE: EC ALEATORIZADO DE NO INFERIORIDAD PARA EVALUAR LA EFICACIA Y SEGURIDAD DEL TRATAMIENTO CORTO DE LA BACTERIEMIA ENTEROCÓCICA NO COMPLICADA
- ✓ ORAL ANTIMICROBIAL TREATMENT VS. OUTPATIENT PARENTERAL FOR INFECTIVE ENDOCARDITIS
- ✓ ENSAYO CLINICO INTERNACIONAL REMDESIVIR en COVID (NCT 04280705 Y NCT 0428704)
- ✓ ESTUDIO DE REMDESIVIR EN COVID EN INSUFICIENCIA RENAL: A PHASE 3 RANDOMIZED, DOUBLE-BLIND, PLACEBO-CONTROLLED, PARALLEL GROUP, MULTICENTER STUDY EVALUATING THE EFFICACY AND SAFETY OF REMDESIVIR IN PARTICIPANTS WITH SEVERELY REDUCED KIDNEY FUNCTION WHO ARE HOSPITALIZED FOR COVID-19
- ✓ ENSAYO CLINICO INTERNACIONAL SOLIDARITY-OMS (COVID)
- ✓ ENSAYO CLINICO NACIONAL PanCOVID: ENSAYO CLÍNICO ALEATORIZADO PARA EVALUAR LA EFICACIA DE DIFERENTES TRATAMIENTOS EN PACIENTES CON COVID19
- ✓ ESTUDIO NACIONAL DE LA CARGA VIRAL de SARSCoV2 en vías respiratorias y sangre como factor asociado al pronóstico de la COVID19 en adultos
- ✓ ESTUDIO NEPTUNO: A PHASE 3, MULTICENTRE, RANDOMISED, CONTROLLED TRIAL TO DETERMINE THE EFFICACY AND SAFETY OF TWO DOSE LEVELS OF PLITIDEPSIN VERSUS CONTROL IN ADULT PATIENTS REQUIRING HOSPITALISATION FOR MANAGEMENT OF MODERATE COVID-19 INFECTION
- ✓ ESTUDIO NACIONAL COVID EN VIH
- ✓ ENSAYO CLINICO INTERNACIONAL BRACE : BCG VACCINATION TO REDUCE THE IMPACT OF COVID19 IN HEALTHCARE WORKERS
- ✓ ESTUDIO ACTIV-4 ACUTE. MULTICENTER, ADAPTIVE, RANDOMIZED CONTROLLED PLATFORM TRIAL OF THE SAFETY AND EFFICACY OF ANTITHROMBOTIC STRATEGIES IN HOSPITALIZED ADULTS WITH COVID-19



- ✓ ESTUDIO RELEASE: ESTUDIO DE LA INMUNIDAD Y CREACIÓN DE UN BANCO NACIONAL DE TERAPIA CELULAR ADOPTIVA DE DONANTES DE LINFOCITOS QUE HAN SUPERADO COVID-19. ENSAYO CLÍNICO FASE I/II MULTICÉNTRICO PARA EVALUAR LA SEGURIDAD Y EFICIENCIA DE LA INFUSIÓN DE LINFOCITOS T MEMORIA Y NK COMO TERAPIA CELULAR ADOPTIVA EN CASOS PACIENTES CON NEUMONÍA Y/O LINFOPENIA DEBIDO AL CORONAVIRUS SARS-COV-2

Infekziosoetako errotazioan, egoiliarri aukera ematen zaio ikerketa-lanetan arian-arian hasteko, eta egoiliar-aldia aurrera joan ahala, gero eta erantzukizun handiagoa hartzen du.

Jarduera zientifikoari buruzko informazio xeheagoa hemen duzu eskuragarri:

[MEMORIA ZIENTIFIKOA](#)



Prestakuntzaren ebaluazioa

Ebaluazioa ikasketaren motorra da eta ikasketa erraztera zuzenduta dago, beraz, indarrak eta ahultasunak antzeman eta hobekuntza planak ezarriko ditu. **“Ebaluazio formatiboa”** deitutako ebaluazio mota horretarako, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleak gaitasunetan oinarrituta dauden zenbait metodo kualitatibo erabiltzen ditu. Behean aipatuko diren metodo horiei esker, informazio zehatz bat iturri anitzetik lortu eta hainbat ikuspegi izan ditzake (gainbegiralearen ebaluazioa, norberak egindako hausnarketa eta autoebaluazioa). Informazio horrekin, **Urteko Ebaluazio Batzordeak** txosten bat lantzen du aho batez, eta bertan, egoiarraren indarrak eta hobetzeko arloak (egongo balira) adierazten dira. Gaitasunetan oinarritutako txosten honek ezinbestean egindako ikastaroen egiaztagiriarekin batera **“Egoiarraren Urteko Txostena”** osatzen dute. Tutorea prestakuntza prozesu guztiaren kudeaketaren arduraduna da eta Urteko Txostena emango dio ikasleari.

Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Alergia Zerbitzuko BAMEek (Barruko Medikueko Egoiarrak) lortu beharreko gaitasunak, Ospitaleko irakaskuntza Batzordeak zehaztutakoaren arabera:

1. Balio profesionalak, jarrerak, jokabidea eta etika.
2. Pazientea zaintzea eta trebetasun klinikoak.
3. Ezagutza medikoak / medikuntzaren oinarri zientifikoak.
4. Komunikazioa
5. Osasun sistemaren testuinguruan oinarritutako praktika (Osasunaren sustatzailea eta Baliabideen Kudeatzailea).
6. Ikaskuntzan eta hobekuntzan oinarritutako praktika (Analisi kritikoa eta ikerketa).
7. Informazioaren erabilera.

Asistentzia- eta irakaskuntza-gaitasunak, espezialitatearen beraren ikerketa gaitasunekin batera, hemen biltzen dira: [Barne Medikuntzaren prestakuntza-programa ofiziala](#)



Gurutzeta Unibertsitate Ospitaleko ebaluazio sistema orokorra¹.

[Irakaskuntza Batzordeak](#) eta Gaitasunen Ebaluazio Batzordeak ebaluazio sistema zuzentzen dute. Sistema hori Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea 2008. urtetik garatzen joan den “Gaitasunetan oinarritutako Prestakuntza Espezializatua” proiektuaren parte da. Ebaluazio metodoak hauek dira:

- a. Txandatze bakoitzaren Gainbegirale zuzenaren ebaluazioa, Gaitasunetan oinarritutako formulario baten bidez (Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko berezko eredu)
- b. Tutorearekin aldi behingo elkarrizketak (gutxienez urtean bi)
- c. Autoebaluazioa
- d. Urteko Memoria (Egoiliarren Liburuaren baliokidea da) bi alderdi hauek sartzen ditu: jasotako gaitasunen gaineko hausnarketa eta asistentzia-, irakaskuntza- eta ikerketa-jardueren zein lanbidearekin erlazionatutako beste ekintzen kuantifikazioa
- e. Gaitasunetan oinarritutako Tutorearen urteko txostena
- f. Ebaluazio Batzordearen urteko balorazioa
- g. Irakaskuntza Batzordeak antolatutako derrigorrezko ikastaroak egitea
- h. Gaitasunetan oinarritutako urteko banako txostena

Egoiliarren ebaluazioa jasotako Prestakuntzaren gainean.

1. Urtero, apirilean, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko egoiliar guztiei gogobetetze inkesta bat bidaltzen die.
2. Bi urtean behin, otsaila eta martxo bitartean, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Irakaskuntza Batzordeak gogobetetze inkesta bat bidaltzen du. Inkesta hau orain dela 20 urte egiten da.

Emaitzak zerbitzuei eta egoiliarrei jakinarazten zaie.

¹ Morán-Barrios J, Amutio E, Barbier L, Carrasco A, Gil-Lemus MA, Gómez B, Iriberrí M, Padilla L, Rodríguez-Iñigo MA, Saá R, Larrañaga I, Nieto J, Udaondo J y González-Larragán S. Evaluación del residente basada en competencias. El modelo del Hospital Universitario de Cruces. XXI Congreso de la Sociedad Española de Educación Médica Madrid 2013. FEM 2013; 16 (Supl 2): S62. Disponible en: <http://www.sedem.org/resources/abstractsSedem2013.pdf>.



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



Gaixotasun Infekziosoetako Unitatea©